



Escuela de Educación para la Sostenibilidad 2030: observando avances mediante la medición de impacto



Uzt. 04 - Uzt. 05 2024

Kod. H18-24

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2024

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 04 - Uzt. 05 2024

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Gaztelera

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Jasangarritasunerako hezkuntza funtsezko tresna da aldaketa eta eraldaketa ekosoziala lortzeko, 2030erako Garapen Iraunkorreko helburuen gauzatzeak eta Basque Green Dealek etorkizuneko Euskadi iraunkorrerako definitzen dutena. Eskolaren III. edizio hau eragileen arteko topaketarako aukera berri bat da, erronkei heltzeko eta konponbideak partekatzeko. Edizio honetan eraginaren neurketan zentratuz: ingurumen-hezkuntzaren bidez lortzen ari al gara lortu nahi ditugun helburuak?

Inpaktu sozialaren neurketa, proiektu, programa edo politika jakin baten ondorioz publiko edo onuradunek jasaten dituzten aldaketak neurtzea ahalbidetzen diguten metrika adostuak identifikatzea, kuantifikatzea eta aztertzea da. Emaidza horiei esker egiaztatu eta ulertu ahal izango dugu lortu nahi duguna lortzen ari garen inpaktuari dagokionez, hau da, onuradunengan eta ingurumenean espero ditugun ondorioak sortzen ari ote garen. Zerk funtzionatzen duen eta zerk ez identifikatzen laguntzen du, gizarte-aldaketa bultzatzeko. Horrela, ikasketa bat sortzen da, erakundearen jarduna gidatu behar duena eta esku-hartzearen kudeaketa zehazten duena.

Helburuak

Ingurumen-hezkuntzan diharduten irakasleen eta beste erakunde laguntzaile batzuen arteko topaketa eta hausnarketa ahalbidetzea.

Herritarrek eragiten dituzten eta Iraunkortasunerako Hezkuntzatik landu eta baliabide didaktikoak eskura ditzaketen erronka energetiko-klimatikoak nola sinkronizatu jakitea.

Iraunkortasunerako Hezkuntzako jarduerak ikuspegi eraldatzailearekin garatzen ari diren EAEko eta beste lurralde batzuetako esperientziak ezagutu eta eztabaidatzea.

Iraunkortasunean eta erronka ekosozialetan aurrera egiteko behar diren balioei eta ikaskuntza-esperientzia berriei buruz hausnartzea.

Lankidetzak



Zuzendaritza



Xabier González Vegas

Ihobe, Gobierno Vasco, Director de Sostenibilidad Ambiental

Politika publikoen kudeaketari profesionalki jardunean, ingurumen-politiken diseinuarekin, garapenarekin eta komunikazioarekin lotutako proiektuak eta zerbitzuak kudeatzeko eginkizun teknikoak garatu ditu azken hogeitaz urteetan. 2010. urteaz geroztik, kudeaketa-ardurak ditu laguntza estrategikoaren eta komunikazioaren arloan, eta, gaur egun, Ihobeko (Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa) Ingurumen Iraunkortasuneko Zuzendaritza betetzen du. Gainera, 2011tik kanpoko hainbat ebaluazio-prozesutan parte hartzen du Euskaliten Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Sariaren atalean, eta horietako batzuetan ebaluatzaile seniorren rola bete du. EHUK prestatutako-ekonomialaria, komunikazioan, ingurumen-politikan, eskualde- eta hiri-ekonomian unibertsitateko espezializazioarekin. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Enpresa eta Erakunde Komunikazioko Zuzendaritzako masterra ere badu.



Ainhoa Diez de Salazar Gutierrez

Ihobe - Eusko Jaurlaritza, Ekoetxea Sarearen arduraduna - Euskadiko Ingurumen Zentroak

Ingurumen zientzietako lizenziatura amaitu eta mundu pedagogikoan trebatu ondoren, nire motibazioa aurkitu nuen, nire bi grinak batzen zituen esparrua, ingurumena eta irakaskuntza; Ingurumen Hezkuntza. Zazpi urtez aritu naiz ingurumen-hezitzaile moduan, mendian bertan, Aralarko Parke Naturalean sustraituta. Urte horiek emankorrak bezain biziak izan ziren. 2018an, jauzi bat egin nuen landa-lanetik kudeaketa esparrura; zehazki, Ihobek kudeatzen duen Ekoetxea Euskadiko Ingurumen Zentroen Sarearen kudeaketara. Gaur egun sare horren arduraduna naiz. Ekoetxea Sarea eraldaketa-prozesu batean dago, eta gizarte gisa aurre egin behar diegun trantsizio ekologikoaren ondoriozko errokei erantzutea du helburu. Eraldaketa-prozesu berritzaile honen arduraduna naiz, eta gozamen hutsa da niretzat lan hori.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2024-05-31 ARTE	2024-07-04 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	59,00 EUR
Orokorra	-	84,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	71,00 EUR
Matrikula exentzia	-	59,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2024-05-31 ARTE	2024-07-04 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	59,00 EUR
Orokorra	-	84,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	71,00 EUR
Matrikula exentzia	-	59,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa